

ARBEL BELTZA

Sasoilunak
euskal hezkuntzan

Los años oscuros
en la educación vasca



ARBEL BELTZA

Saso ilunak
euskal hezkuntzan
Los años oscuros
en la educación vasca



Lehen argitalpena: 2014ko abendua
© Donostiako Udala
© Aranzadi Zientzia Elkarte
Autorea: Iñaki Egaña
Dokumentazio grafikoa: Juantxo Egaña
Azala eta Maketazioa: Grafikoki
Azaleko argazkia: Elurretako Andra Mariaren babes-etxea Gasteizen, 1959. urtea.
Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia.
Alberto Schommer Koch
ISBN: 978-84-943123-5-9
Lege Gordailua: SS 1498-2014

Primera edición: Diciembre de 2014
© Ayuntamiento de San Sebastian
© Sociedad de Ciencias Aranzadi
Autor: Iñaki Egaña
Dokumentazio gráfica: Juantxo Egaña
Portada y maquetación: Grafikoki
Foto portada: Asilo de Nuestra Señora de las Nieves en Gasteiz, 1959.
Archivo Del Territorio Histórico de Álava.
Alberto Schommer Koch
ISBN: 978-84-943123-5-9
Depósito legal: SS 1498-2014

Oroimenik ez duen herria, herri umezurtza da. Gure herriak jasan dituen gatazka, indarkeria eta giza eskubideen urratze guztiak ezagutu eta azaleratzeko pauso bat gehiago da eskuartean duzun liburua.

Gertatu dena jakin beharra baitago orainean bizi duguna ulertu eta etorkizun hobea eraikitzeko. Hiri bezala dugun erronka nagusietakoa ezberdinen arteko bizikidetzak justiziatik eta askatasunetik eraikitzea izanik, "Arbel Beltza" k argitasuna jarri nahi du gure iragan urbil, ilun, honen ezagutzan.

1931n errepublika aldarrikatu zenetik, estatu kolpe militarera eta urte luzetako diktadura lazgarria, ezagutu nahi dugu, jakin nahi dugu, gogoratzeko eta haien erreparaziorako, urte horietan guztietan motibo ideologiko edo arrazoi politikoengatik jazarpena eta bidegabekeriak jasan zituzten maisuak eta maistrak. Horrelakorik berriz gertatu ezin delako, hezkuntza demokratikoa eta libre a gure iparra, artizarra izan behar da.

Ikusteak eta ikasteak argitzen gaitu, baina ez atzeko iluntasunari begira bizitzeko: iragane-ko akatsak errepikatuko ez dituen historia berria denon artean eraikitzeko baizik.

Un pueblo sin memoria es un pueblo huérfano. Este libro que tienes entre tus manos simboliza un paso más hacia adelante en todo lo que se refiere a dar a conocer y sacar a la luz los conflictos, la violencia, así como todas las violaciones de los derechos humanos que ha sufrido nuestro pueblo.

Es necesario saber lo que ha sucedido para poder comprender lo que vivimos en la actualidad y erigir un futuro mejor. Como ciudad, uno de los retos principales que tenemos, es construir la convivencia entre diferentes, desde la justicia y la libertad. Así, "Arbel beltza", tiene como objetivo esclarecer nuestro pasado cercano, pero oscuro.

Queremos conocer las injusticias y persecuciones a las que fueron sometidos nuestros maestros y maestras por motivos ideológicos y políticos, desde que se proclamara la república en 1931, hasta el golpe de estado militar, así como durante la terrible y larga dictadura. De esta forma, podremos recordar y reparar a las víctimas. Esto no puede volver a suceder, la educación democrática y libre debe ser nuestro norte, la estrella que nos guíe.

Dar visibilidad y aprender de los hechos nos aporta claridad, pero no para vivir mirando hacia el oscuro pasado, sino para construir una nueva historia en la que no se repitan los errores de lo ocurrido.

Juan Karlos Izagirre Hortelano
Donostiako Alkatea Alcalde de San Sebastián

Sarrera

Hezkuntza gizartearen aurrerapausoarekin lotuta egon da. Heziketa irakaskuntzaren sinonimoa da, nahiz eta ñabardura batzuk aipatu beharko liratekeen, horietako batzuk lan honen oinarriak. Ikaskuntzaren iturria, aitzitik, transmisioa da, ingurunera egokitzea, eta horrek planeta hau bizileku duten gainerako espezieengana gerturatzeko gaitu. Denek bat egiten dute antzinako joko moduko batean, non helduek beren jakintzak irakasten dizkieten gazteenei, ikasleak bizirauten eta gizartea garatzen lagunduko duten subjektu bilakatuz.

Gurasoek seme-alabei transmititu dizkiete bizitzako funtsezko piezak, familiaren baitan. Halaber, bizitzen ere irakatsi diete, baina berezitasun batekin: gizakia da gurasoengandik independizatzeko beharrezko jakintzak eskuratzeko denbora gehien behar duen animalia-espezia. Eskola jaio zenean, mugatuta zegoen eta gutxiengo oso jakin batentzat baino ez zen. Eskola helenistikoek, erromatarrek edo Erdi Aroko monasterioek beren jakintzak irakatsi zituzten, beren eliteen, eta politika- eta apaiz-ordenen ondorengoak prestatzeko. Garai haietako hezkuntza boterearen tresna bat izan zen, duela gutxiko beste hezkuntza batzuk bezala.

“Arbel beltza” erakusketa, hain zuzen, duela gutxiko gure historiaren garairik asaldatuenetako batean hezkuntza zer-nolakoa zen azaltzen saiatuko da: Gerra Zibilaren hasieratik diktadorearen heriotzarainoko aldia, Frankismoaren ildo ilunak aipatuz. Horrez gainera, hasiera batean, euskal aldundiek eta udalek hezkuntza herrialdeko txoko guztietara hedatzeko egin zuten ahaleginaren, eta hezkuntzaren doakotasunaren eta laikotasunaren alde egin zuen Espainiako Bigarren Errepublikaren oso bestelakoa izan zen egoera.

Diktaturak zapuztu zuen hezkuntza-proiektu

Introducción

La educación ha estado ligada al progreso y al avance de la sociedad. Instrucción es sinónimo de enseñanza, aunque habría que introducir unos cuantos matices, soportes algunos de este trabajo. El aprendizaje, por contra, tiene su fuente en la transmisión, en la adaptación al medio, lo que nos acerca al resto de especies que poblamos este planeta. Todas ellas confluyen en una especie de juego atávico en el que las personas adultas imparten sus conocimientos a quienes todavía no lo son, transformando al alumnado en sujetos capaces de contribuir a la subsistencia y desarrollo de la sociedad.

Las piezas elementales de la vida han sido transmitidas de madres y padres a hijas e hijos, en el seno de la familia, incluso el aprendizaje vital, con la particularidad de que el ser humano es la especie animal que más tiempo necesita para adquirir los conocimientos necesarios para independizarse de sus progenitores. Cuando nació la escuela, ésta lo hizo desde una concepción restringida y destinada a una minoría muy localizada. Las escuelas helenísticas, romanas o los monasterios de la Edad Media, impartieron sus conocimientos para preparar la continuidad de sus élites, órdenes políticas o sacerdotales. La educación de esas épocas, como de otras más recientes, fue un instrumento de poder.

La exposición “Arbel beltza” intentará explicar precisamente, la enseñanza durante una de la épocas más convulsas de nuestra historia reciente. La que va del inicio de la guerra civil a la muerte del dictador, atravesando las líneas oscuras del franquismo. En un inicio, además, que contrastó con el impulso anterior de diputaciones y ayuntamientos vascos por extender la enseñanza a todos los rincones del país y de la Segunda República española que apostó abiertamente por la gratuidad y la laicidad de la enseñanza.

ikaragarri bat izan zen hura. Hezkuntza erregimenaren tresnarik indartsuenetako bat bihurtu zen. Bi, agian, hiru belaunalditako gizonei, emakumei eta neska-mutlei indarrez kendu zitzairen hezkuntza egoki baterako eskubidea. Nazio Batuen 1948ko abenduko adierazpenak gai horri buruzko berriazko atal bat gehitu zuen: "Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, eta arraza erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du". Bistan denez, hezkuntza-sistema frankista interpretazio unibertsal horretatik oso urrun zegoen.

Erakusketa honen helburua, ordea, ez da aurreko garaietan murgiltzea. Hala ere, hezkuntzak, horren bistakoa den gaiak, iraganean egindako ibilbidearen pasartetxo bat eskaini nahiko genizuke. Jende ezezagunaren ahaleginari esker lortu dugu egungo egoera, eta atzera begiratzen badugu, egoera pribilegiatuan gaudela esan dezakegu. Irakasgaiak gaur egun dituen eztabaida-faktoreekin: atzerapena den ala ez, eta curriculum-lerroa ere. Eta horrek aditzera ematen du, nabarmen, irakaskuntza zerbait bizia dela, eta ez automatikoki erreproduzitzen den erlikia historikoa.

Hezkuntzaren hasieran

Gure ingurunean, eta XII. mendetik aurrera, hezkuntza Eliza Katolikoaren zeregina izan zen bakarrik. XVI. mendean, ordea, euskal udalerriek hezkuntzaren aldeko bulkada bat eman zuten: udalerriek beren gain hartu zituzten hezkuntza-gastuak, nahiz eta irakaskuntza oraindik Elizaren esku egon.

Euskal herrietako eskoletan, egungo ideia arabera lehen hezkuntzakoak zirenetan, adinari gehiegi erreparatu gabe elkartzen zituzten ikasleak, irakurtzen, idazten eta zenbatzen irakasteko. Funtsezko arau horiek irakasteaz gain, kristau-ikasbidea ere irakasten zieten. Udalek ahaleginak egin zituzten arren, ez zuten

Aquel fue un enorme proyecto abortado por la dictadura que volvió a convertir a la enseñanza en una de las herramientas más enérgicas de su régimen. Hombres, mujeres, niños y niñas, de dos, quizás tres generaciones, vieron usurpado su derecho a una educación adecuada. La declaración de Naciones Unidas de diciembre de 1948 agregó un apartado específico sobre esta cuestión: "La educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana y el fortalecimiento del respeto a los derechos humanos y a las libertades fundamentales; favorecerá la comprensión, la tolerancia y la amistad entre todas las naciones y todos los grupos étnicos o religiosos". Es notorio que el sistema educativo franquista estaba en las antípodas de esta interpretación universal.

No es objeto de esta Exposición sumergirse en épocas anteriores. Sin embargo, nos gustaría brindar algún trazo del recorrido que tuvo una cuestión tan evidente como el de la educación en el pasado. Del esfuerzo de gentes anónimas que nos ofrecieron la oportunidad de alcanzar la situación actual que, volviendo la vista atrás, podemos calificar de privilegiada. Con todos los factores de debate, regresión o no, línea curricular incluso, que la misma materia conlleva en el presente. Que traslada a la constatación, obvia, que la enseñanza es una sustancia viva y no una reliquia histórica que se reproduce automáticamente.

En los albores de la enseñanza

En nuestro entorno, y desde el siglo XII, la enseñanza fue una tarea exclusiva de la Iglesia católica. En el siglo XVI, sin embargo, se produjo un impulso a favor de la enseñanza dirigido por los municipios vascos, que pasaron a sufragar los gastos educativos, a pesar de que la instrucción continuase en manos de la Iglesia.

Las escuelas de las poblaciones vascas, primarias en la idea actual, combinaban a su alumnado sin tener en cuenta excesivamente la



Nazio Batuen Erakundearen argazki-juntas. Fondo fotográfico de Naciones Unidas.

1948an, Nazio Batuek hezkuntza funtsezko askatasuntzat jo zuten Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean.

Naciones Unidas, en la Declaración Universal de Derechos Humanos, en 1948, abordó la educación como una de las libertades fundamentales.



Kubateka. Munoa Funtza. Fondo Munoa.

Ikastetxe erlijiosoa Bergaran, 1883an.
Escuela religiosa en Bergara, 1883



Gipuzkoako Arxibo Orokorra. Archivo General de Gipuzkoa. Indalecio Ojanguren

Bernagotiako eskola (Zornotza), 1923. urtean inauguratutakoa.
Escuela de Bernagotia (Amorebieta), inaugurada en 1923

orduko gizarte-norabidea aldatu: seme-alabak txiki-txikitatik hasten ziren lanean baserrian, eta hori zela eta, biztanleriaren gehiengoak analfabetoa izaten jarraitu zuen. Eskolara joateari dagokionez, nabarmena zen neskak bereizten zituztela mutikoen mesedetan, gizarte patriarkal eta matxista baten kodeari jarraiki.

XVII. eta XVIII. mendeetan, parrokia bakoitzak bere eskola izatea lortu zuten euskal erakundeek, eremuaren arabera ñabardura ugariarekin. Hala ere, ekimen goresgarri horrek aldrebeskeria ugari ere izan zituen. Euskal eskola askotan, landakoak izan nahiz ez, eraztunaren araua ezarri zen. Euskaraz hitz egiteko *trakestasuna* egiten zuten neska-mutilek elkarri eraztuna pasatzean zatzan araua. Klase bakoitza amaitzean, eraztuna zuen ikasleak zigorra edo jipioa pairatzen zuen, irakaslearen umorearen arabera.

Neurri hori XX. mendera arte egon zen indarrean euskal eskola batzuetan. Euskal nortasunaren ezaugarriek, besteak beste, euskarari, eustea aldarrikatu zutenek, hala nola Agustín Kardaberazek edo Arturo Campiónek, gogor eraso zuten neurri horren aurka. Euskara baztertuta zegoen, kristau-ikasbidea irakasteko soilik erabiltzen zen, eta irakurtzen eta zenbatzen gaztelaniaz edo frantsesez ikasten zuten haurrek. 1902. urtean, hezkuntzan erabiltzen ziren euskarazko kristau-ikasbideak debekatu egin ziren.

XIX. mendean, Elizatik bereizitako lehen eskolak agertu ziren. Pixkanaka-pixkanaka, Estatuak babestu zituen, Erresuma osoarentzat hezkuntza uniformeko proiektuen bidez. Mendearan erdialdean, Eskola Arruntak delakoak iritsi ziren, etorkizuneko maistrak eta maisuak prestatzeko. Gipuzkoan, gizonezkoen Eskola Arruntek hiru urteko ibilbidea baino ez zuten izan (1845-1848). Emakumeenek, aldiz, 1899tik 1930era iraun zuten, batek izan ezik (1865-1869).

Ez zirudien irakasletza prestigiozko lanbide bat zenik. Hori dela eta, ez zegoen irakasleak prestatzeko eskolarik, Gipuzkoako Batzar Nagusiek hainbat saiakera egin zituzten

edad, y con el objeto de enseñarles a leer, escribir y contar. Junto a estas reglas elementales, se añadían las lecciones de catecismo. Los esfuerzos municipales no sirvieron para cambiar la directriz social, tendente a que los hijos e hijas trabajasen en el caserío desde temprana edad y, así, la población continuó siendo mayoritariamente analfabeta. Y en la asistencia escolar, además, era notoria la discriminación de las niñas en favor de los niños, siguiendo el código de una sociedad patriarcal y machista.

En los siglos XVII y XVIII, las instituciones vascas ya habían logrado, con diversas matizaciones según las zonas, que cada parroquia contase con su propia escuela. Sin embargo, esta loable iniciativa tuvo varias aberraciones. En muchas de las escuelas vascas, rurales o no, se estableció la norma del anillo. La fórmula consistía en pasar un anillo entre los niños y niñas que cometiesen la *torpeza* de expresarse en euskara. El último que lo portase después de cada clase recibía un castigo o una paliza, según el talante del profesor o profesora.

Esta medida, vigente en algunas escuelas vascas hasta el siglo XX, fue duramente atacada por quienes, como Agustín Kardaberaz o Arturo Campión, reivindicaron el mantenimiento de las señas de identidad vascas, entre ellas, el euskara. La lengua vasca había quedado relegada a la enseñanza del catecismo, mientras que las funciones de leer y contar se debían realizar en castellano o francés. En 1902, fueron prohibidos los catecismos en euskara que se utilizaban en la enseñanza.

En el siglo XIX aparecieron las primeras escuelas desligadas de la Iglesia. Fueron amparadas lentamente desde el Estado, con proyectos de una educación uniforme para todo el Reino. A mitad del siglo comenzarían las llamadas Escuelas Normales, para formar a las futuras maestras y maestros. Las de varones en Gipuzkoa tuvieron un breve recorrido de tres años (1845-1848), no así las de mujeres que se prolongaron desde 1899 a 1930, con una excepción (1865-1869).



Kubateka. Fotocar Furtsa. Fondo Fotocar Ricardo Martín.

Omenaldía Arturo Campióni 1930. urtean, jada 76 urte zituenean.
Homenaje a Arturo Campión, en 1930, cuando ya contaba 76
años de edad.

arren. Bokaziorik ez zegoenez eta lurraldean axolagabekeria hedatuta zegoenez, beste lurralde batzuetako irakasleak hasi ziren etortzen, eta gehienek ez zekiten neska-mutilen ama-hizkuntza hitz egiten, euskara.

Denboraren joanean, udal eskolen sareak maistraren irudiaren inguruan erlatzen joan ziren. Donostian, hiriaren historiako urterik zorigaiztokoenean, 1813. urtean, María Cruz Allafior maistra suak erre ez zuen eraikin bakarretako batean, kartzelan, neska-mutilak biltzeko gai izan zen, haiek eskolatzeko. Gauza jakina den bezala, Wellingtonen tropen erasoan, suak kiskali zuen Donostia, eta egungo Abuztuaren 31 kalea izan zen erre ez zen bakarra, eta kartzela, hain justu, kale horretan zegoen.

Jesús de Benitoren esanetan, 1797. urtean 8.505 neskato zeuden eskolatzeko adinean, eta eskolatzeko-tasa %15ekoa baino ez zen. 1832. urtean, 9.669 neskato zeuden, eta %20 baino ez zegoen eskolatuta. Garai hartan, mutikoen eskolatzeko-tasa %45 eta %50 artean zeuden, aurreko mendeetako joera aldatu zelarik.

XIX. mendearen erdialdean, Gipuzkoan 136 eskola publiko eta 27 pribatu zeuden, eskola bat mila biztanleko. Bigarren Karlistaldia (1877. urtea) amaitzean, Gipuzkoan 288 eskola zeuden guztira. Ehuneko altu horrengatik zegoen salbuespenezko egoera beste joera batekin zetorren bat: ikasgeletan neska-mutilak antzeko ehunekoan zeuden, beste lurralde batzuetan ez bezala, non neskek gehiago ziren. Estatu osoan testuliburu berak erabiltzen ziren, kristau-ikasbidekoak izan ezik, ordurako jada euskarara itzulita zeudenak.

1910. urtean, Paulí Dávilaren arabera, Gipuzkoako eskolen %40 Eskola Nazionalak (publikoak) esaten zitzaizkien, %35 pribatuak (erlijiosoak) eta % 25 udalenak. Urte horretan bertan, eta Tomás Arangoak *Euskal-Erria* aldizkarian idatzi zuen bezala, Donostiako Udala "Heziketarako aurrekontuan estatuak agintzen duena baino askoz ere zenbateko handiagoa inbertitzearekin aski ez, eta lehen

No parecía la del magisterio una profesión prestigiada, por ello la ausencia de una escuela para su formación, a pesar de varios intentos de las Juntas Generales de Gipuzkoa. La falta de vocación y el desinterés extendido originó la llegada de profesorado de otros territorios, la mayoría desconocía la lengua de los niños y niñas, el euskara.

A través de los tiempos, las redes de escuelas municipales se habían ido forjando en torno a la figura de la maestra. En Donostia, en el curso del año más trágico de su historia, 1813, la maestra María Cruz Allafior fue capaz de reunir a niñas y niños para su instrucción en uno de los pocos edificios que se habían salvado del fuego, la cárcel. Como es sabido, Donostia fue pasto de las llamas en el asalto de las tropas de Wellington y la actual calle 31 de agosto fue la única que se salvó de la quema, precisamente donde esta ubicada la cárcel.

Jesús de Benito nos cuenta que en 1797 había en Gipuzkoa 8.505 niñas en edad escolar, con una tasa de escolarización del 15%. En 1832, las niñas eran 9.669 con una escolarización del 20%. Las tasas de escolarización de niños, en esos años, se deslizaban entre el 45 y el 50%, volteando la tendencia de siglos anteriores.

A mediados de ese siglo XIX, Gipuzkoa contaba con 136 escuelas públicas y 27 privadas, una escuela por cada mil habitantes. Al concluir la Segunda Guerra carlista (1877), Gipuzkoa sumaba 288 escuelas. La excepcionalidad, por este alto porcentaje, se correspondía con otra tendencia: niños y niñas compartían ya a medias las aulas, al contrario que en otros territorios donde las niñas eran mayoría. Los libros de texto eran comunes en todo el Estado, excepto los de catecismo, traducidos ya al euskara hasta la fecha señalada.

En 1910, según Paulí Dávila, el 40% de las escuelas de Gipuzkoa eran las llamadas Nacionales (públicas), el 35% privadas (religiosas) y el 25% municipales. En ese mismo año, y tal y como escribía Tomás Arangoa en la revista *Euskal-Erria*, el Ayuntamiento

izan da bere eskolak mailakatzeko, eskola-kantinak ezartzen, azken aurrerapenean arabera heziketa fisikoko klasea antolatzen eta abar”.

XX. mendea hasi zenean, maistren Irakasle Eskola azkenik proiektu sustraitu baten bidez gauzatu zen: ikastetxe bat ireki zuten Donostian, Egiako auzoko txalet batean, eta Gipuzkoako Aldundiak kudeatzen zuen ekonomikoki. Herrialdeko gainerako lekuetan, maisuen eta maistren nahiz eskolen prestakuntza udalei zegokien, aldundien laguntzarekin. Egoera horretara iristeko lan ikaragarria egin behar izan zen, eta jende mota ugari parte hartu zuen.

Balio errepublikanoak eta ikastolak

Bigarren Errepublikaren etorrerak aldaketak ekarri zituen, eta aldaketa horiek eragin handia izan zuten kondairazko hezkuntza-tradizio hartan. Eskola bakarra, lehen hezkuntzak doakoa eta derrigorrezkoa izan behar zuela eta laikotasuna aldarrikatu ziren. Kristau-ikasbideak, erlijioak, inposatutako irakasgai izateari utzi zion. Eskolen eta irakasleen kopurua handitzeko erabaki irmoa hartu zen.

Irakasleak funtzionarioak izango ziren, bai eta Estatuko langileak ere. Maistrak eta maisuak prestatzeko eskolak mistoak izango ziren, ikasgelak bezala. Irakasleek derrigorrezko titulua izan beharko zuten, irakaskuntza pribatuan nahiz publikoan, eta bigarren hezkuntzarako lizentziatura izatea eskatu zen. Urte horietako hezkuntza-bulkada zela eta, Gipuzkoan ia erabat desagertu zen analfabetismoa, lurraldeko udalek ordaindutako landako eskolen laguntzaz. Ordura arte, analfabetismoa kentzea izan zen Gipuzkoako erakundeen kezka nagusietako bat. 1900. urtean, Gipuzkoako biztanleriaren %47 analfabetoa zen (gaztelaniaz), eta 1930ean, %26.

Eskoletako elebitasuna eta Autonomia Estatutuaren bidez hezkuntzaren arloko eskumenak eskualdatzea, praktikan, hobekuntza bat izan zen, gerragatik arrakastarik izan ez zuen arren. Euskal Estatutua 1937ko

de Donostia “no contento con invertir en su presupuesto de instrucción una cantidad mucho mayor que la que preceptúa el Estado, ha sido además el primero de España en graduar sus escuelas, establecer cantinas escolares, clase de educación física con arreglo a los últimos adelantos, etc.”.

Cuando comenzó el siglo XX, la escuela de Magisterio para maestras se plasmaría por fin en un proyecto enraizado, con la apertura de un centro en Donostia, ubicado en una villa del barrio de Egiá, y gestionado económicamente por la Diputación de Gipuzkoa. En el resto del país, tanto la formación de maestros y maestras como de las escuelas, correspondía a los ayuntamientos, con apoyo también de las diputaciones. El esfuerzo para llegar a esta situación fue titánico, y en él participaron gentes de todas las condiciones.

Valores republicanos e ikastolas

La llegada de la Segunda República estimuló cambios de gran calado en una tradición educativa legendaria. Fue proclamada la escuela única, la gratuidad y obligatoriedad de la enseñanza primaria y la laicidad. El catecismo, la religión, dejaría de ser materia impuesta. Hubo una decisión firme de aumentar el número de escuelas y de docentes.

El personal docente sería funcionario e integrado en nómina del Estado. Las escuelas de formación de maestras y maestros serían mixtas, al igual que las aulas. El profesorado debía poseer el título preceptivo, tanto en la enseñanza privada como pública, y para la Media se exigió una licenciatura. El impulso educativo en esos años llevó casi a la erradicación del analfabetismo en Gipuzkoa, con el apoyo de las escuelas rurales, costeadas por los ayuntamientos del territorio. La eliminación del analfabetismo había sido una de las principales preocupaciones de las instituciones guipuzcoanas. En 1900, el analfabetismo (en castellano) alcanzaba al 47% de la población guipuzcoana y en 1930 del 26%.

urrian sartu zen indarrean, Frankismoak jada nagusitasun politikoa lortu zuenean, Gipuzkoako eta Arabako lurralde gehienetan guda gogorrek izan ondoren. Hori dela eta, gerra-garaian, Bizkaian bakarrik aplikatu zen, 8 hilabetez.

Elizak, armadak eta gizarteko sektorerik kontserbadoreenek aurrez aurre eraso zieten hezkuntzaren arloko balio eta eraldaketa errepublikanoei. Estatuko gotzainek jada argitu zuten beren iritzia 1932an, pastoral kolektibo baten bidez. Pastoral horretan, eskola laikoak *“haurren kontzientzia babesgabea eta gurgaria desitxuratzeko zuela”* eta *“eskola neutroa”* zeritzona aplikatzea *“gizona elbarritzea”* zela esan zuten.

Errepublikari iritsi baino lehen, zenbait irakaslek irakaskuntza elebidunaren aldeko kanpaina aktibo bat kaleratu zuten. Lehen ikastola Donostian sortu zen 1914. urtean, Miguel Muñoa jaunaren suharrari esker, eta Koruko Andre Mariaren Ikastetxea izena izan zuen. Testuliburuak agertu ziren euskaraz, eta beste ikastola batzuk sortu ziren, Donostiako ikastola hasiberri hartaz gain.


Ikastolen esperientzia Tolosara (1921) eta Erreteriarra (1928) zabaldu zen. 1930eko hamarkadan, eta ideia euskaltzaleen gorakadarekin eta maisu eta maistra askoren berotasunarekin bat, eskola berriak agertu ziren Soraluzen, Oñatin, Seguran, Andoainen, Iruran, Lizarran, Elizondon, Gasteizen... Ikastolen lehen federazioa Bilbon sortu zen. 1936. urtean, sorburua Autonomiaren Estatutua izan zuen Eusko Jaurilaritzak ikastolentzako sail bat sortu zuen, eta Vicente Amezaga, Gerra Zibila amaitzean erbesteratu zena, izendatu zuen sail horretako buru. Era berean, euskal Unibertsitatearen aldeko kanpainaren bultzatzaileetako bat ere izan zen Amezaga. 1933an, Autonomia Estatutuaren aldeko kanpainan, jada adierazi zuten Euskal Unibertsitatearen premia zegoela.

El bilingüismo en las escuelas y el traspaso de las competencias de educación a través del Estatuto de Autonomía fue, en la práctica, una mejora que no llegó a cuajar por razones bélicas. El Estatuto vasco entró en vigor en octubre de 1937, cuando el franquismo había logrado su hegemonía política, después de violentos combates, en la mayoría de los territorios de Gipuzkoa y en Araba, por lo que su aplicación, en tiempos de guerra, alcanzó únicamente a Bizkaia, durante 8 meses.

Los valores y transformaciones republicanas en educación sufrieron un ataque frontal de la Iglesia, el Ejército y los sectores más conservadores de la sociedad. Los obispos del Estado ya dieron luz a una pastoral colectiva en 1932 en la que afirmaban que la escuela laica *“deformaba la indefensa y reverenciable conciencia de los niños”* y que la aplicación de la que llamaban *“escuela neutra”* era una *“mutilación del hombre”*.

Antes de la llegada de la República, diversos profesores y profesoras habían lanzado una activa campaña a favor de la enseñanza bilingüe. La primera ikastola germinó en Donostia en 1914 con el entusiasmo de Miguel Muñoa y llevó el nombre de Koruko Andre Mariaren Ikastetxea. Aparecieron libros de texto en euskara y otras ikastolas se sumaron a la novel de Donostia.

La experiencia de las ikastolas se amplió a Tolosa (1921) y Erreteriarra (1928). En la década de 1930, y coincidiendo con el auge de las ideas vasquistas y el entusiasmo de muchos maestros y maestras, aparecieron nuevas escuelas en Soraluze, Oñati, Segura, Andoain, Irura, Estella, Elizondo, Gasteiz... La primera Federación de ikastolas se creó en Bilbao. En 1936, el Gobierno vasco emanado del Estatuto de Autonomía, crearía una sección dedicada a las ikastolas dirigida por Vicente Amezaga quien, terminada la guerra civil, se exilió en Venezuela. Había sido Amezaga uno de los impulsores de la campaña por Universidad Vasca, manifestada ya en la campaña a favor del Estatuto de Autonomía en 1933.



Miren Egaña Furtisa.

Ikastola Donostiako Etxaide kalean, 1935. urtean.

Irudian, María Dolores Goya maistra.

Ikastola en la calle Etxaide de Donostia, en 1935. En la imagen, la maestra María Dolores Goya

Gerra, jazarpena eta sistema-aldaketa

1936ko udan, militar talde batek estatu-kolpea eman zuen, zibilek lagunduta. Kolpeak porrot egin bazuen ere, gerra zibil bat abiarazi zuen. Fronteko ankerkeria, seme-alaben heriotza, lekualdatzea eta beste askoren erbesteartzea ezagutu behar izan zituen Gipuzkoak. Horrez gainera, klase politiko berri batek lortu zuen boterea, eta desegin egin zituen Fronte Popularrak eta ideia errepublikanoak defendatu zituzten gainerako taldeek proposatutako aurrerapenak eta hezkuntza-proiektuak.

Milaka haurrek ikasgelak utzi eta derrigortuta joan behar izan zuten Britainia Handira, Sobietar Batasunera eta Frantziara. Batzuk Bigarren Mundu Gerra hastean itzuli ziren; beste batzuk hogeitau urte geroago, Gurutze Gorriaren bitartekaritza eskertu; eta beste batzuk, berriz, inoiz ez. Geratu zirenek eta ihes egin zutenek izugarritzako aldaketa bizi izan zuten irakaskuntzan.

Gipuzkoan tropa frankistak sartu eta aste gutxitara, José María Arellano, probintziako lehen gobernataria, gertatzeaz zegoen garbiketaren berri ematen hasi zen: *"Eskola publiko mota guztietako liburutegiak arreta handiz aztertuko dira, eta Erligioaren eta kristau-moralaren printzipio onetatik urrun dauden edo ikasleek Aberri bakar eta zatiezin bat gurtzea bultzatzen ez duten lan guztiak suntsituko dira. Agindu hori ez betetzearen arduradunak Lehen Hezkuntzako irakasleak eta ikuskatzaileak izango dira"*.

1936. urtearen amaieran, gobernu usurpatzaileak, 1939ra arte Estatuaren gobernu errepublikanoarekin borrokan ibili zenak, lehen irakaskuntza Batzordea izendatu zuen, José María Pemán idazlea buru izan zuena. Irakasleen artean purga biziak egiten hasi ziren, 1939. urtean, gobernu frankistak babestutako Erantzukizun Politikoen Legea aldarrikatzean, jazarpena gobernu-erakundeen eta erakunde judizialen esku geratu zen arte.

Neurri horiek irakasleak kaltetu zituzten batez ere, denek hutsetik abiatu behar izan baitzuten eta erregimen berriaren printzipioekin bat egiten

La guerra, persecución y cambio de sistema

En el verano de 1936, llegó el golpe de Estado de un grupo de militares, apoyados también por civiles, que en su fracaso, provocaría una guerra civil. Gipuzkoa conocería las inclemencias del frente, la muerte de sus hijas e hijos, el desplazamiento, el exilio de muchos otros y el ascenso de una nueva clase política que echaría por tierra los avances y proyectos educativos que habían propuesto el Frente Popular y el resto de grupos que defendió los ideales republicanos.

Miles de niños y niñas abandonaron las aulas y recalaron forzosamente en Gran Bretaña, la Unión Soviética y Francia. Algunos retornaron al comenzar la Segunda Guerra mundial, otros gracias a la intermediación de Cruz Roja veinte años más tarde, y otros jamás. Los que se quedaron y los que huyeron sufrirían en su enseñanza un vuelco espectacular.

A las pocas semanas de la entrada en Gipuzkoa de las tropas franquistas, José María Arellano, primer gobernador de la provincia, ya avanzaba la purga que se avecinaba: *"Se revisarán con especial cuidado las Bibliotecas de las escuelas públicas de todas clases, eliminando de ellas cuantas obras se aparten de los buenos principios de la Religión y la moral cristianas o no conduzcan a despertar o estimular en los escolares el culto a la Patria, una e indivisible, haciéndose responsables de la infracción de esta orden a los respectivos maestros e inspectores de Primera enseñanza"*.

A finales de 1936, el Gobierno usurpador, en pugna con el republicano hasta 1939 en el Estado, nombraba su primera Comisión de Enseñanza, presidida por el escritor José María Pemán. Comenzaron las purgas del magisterio de manera visceral, hasta que en 1939, con la promulgación de la Ley de Responsabilidades Políticas, auspiciada por el Gobierno franquista, la persecución se hizo desde las instituciones gubernamentales y judiciales.

El profesorado fue el colectivo más afectado por las medidas, ya que todos ellos debieron

zutela frogatu. Maisuak eta maistrak baztertzeko edo berriz onartzeko batzarrek ahalmena zuten altxamendu frankistaren aurka egon zirenak zigortzeko, Frankismoaren ideologia buruan gutxi sartuta zutenak beldurtzeko eta Frankismoaren jarraitzaileak saritzeko. Kolpea babestu zutenek erantzukizuneko karguak lortu zituzten, eta altxamenduari leialtasuna adierazi ziotenek, beren lanpostuari eutsi zioten.

Tesi frankisten aurkako langile funtzionarioen “*garbiketa*” esan ziotena izan zen Administrazioaren lehen zereginetako bat. Historiografia frankistan, garbitutako maistrak eta maisuak estatu-kolpea eragin zuten “ezinbesteko” arrazoitzat hartu ziren, Elizak eta sektorerik kontserbadoreenak Errepublikaren garaian erabilitako argudioen lorratzari jarraituz.

Maite Ostolazaren eta Pedro Barrusoren azterlanen arabera, kalifikazio-batzarrek Gipuzkoako maisuen eta maistren %71ren lanpostuak berretsi zituzten, eta gainerakoak zigortu egin zituzten. Zigortutako irakasleen artean, %13k behin betiko galdu zuen lanpostua. Harrigarria badirudi ere, zigortuen erdia soilik zigortu zuten “*salaketa politikoengatik*”. %41 ideologia errepublikanoarengatik eta ezkertiarrengatik, eta %39, ustez ideologia abertzalekoa zelako. Gainerakoak askotariko “*arrazoi moralengatik*” zigortu zituzten, hala nola “*zeregin erlijiosoak uzteagatik*” eta “*irakaskuntza erlijiosoaren aurka egoteatik*”; hots, 1931ko Konstituzio errepublikanoa babestu zuten pertsonak zigortu zituzten.

Gipuzkoan, Peñafloida Institutuko zuzendaria, Modesto Lecumberri, Irakasleak Garbitzeko Batzordearen presidentea izan zen. Hauek izan ziren gainerako batzordekideak: Nicolás Ochoa de Eribe, Josefina Oloriz, Manuel Jiménez Chacón eta Santiago Azaldegui. Batzordeak erretoreen, Guardia Zibileko komandanteen eta “eskola dagoen lekuko familia ospetsuetako gurasoen” txostenak bildu zituen. Garbitutako lehen maisuen eta maistren izenak Probintziako Aldizkarian agertu ziren 1937ko urtarrilean.

Maitane Ostolazak egindako azterlanaren

comenzar de cero, demostrar su adhesión a los principios del nuevo régimen. Las juntas destinadas a rechazar o readmitir a los maestros y maestras, tenían la gran potestad de castigar a quienes se habían opuesto a la sublevación franquista, intimidar a los menos ideologizados y premiar a los adictos. Los que ampararon el golpe lograrían cargos de responsabilidad y los que demostraron fidelidad a la sublevación mantendrían su puesto de trabajo.

La que llamaron “*limpieza*” del personal funicionario desafecto a las tesis franquistas fue una de las primeras tareas de la Administración. En la historiografía franquista, las maestras y los maestros depurados serían considerados como una de las razones “inevitables” que provocaron el golpe de Estado, siguiendo la estela de los argumentos que había utilizado la Iglesia y los sectores conservadores durante la República.

Según los estudios de Maitane Ostolaza y Pedro Barruso, el 71% de los maestros y maestras de Gipuzkoa fue confirmado en sus puestos por las juntas calificatorias y el resto fue sancionado. De entre el profesorado sancionado, el 13% fue definitivamente de su puesto. Sorprendentemente, entre los sancionados, sólo la mitad lo fueron por “*acusaciones de índole político*”. Un 41% por su ideología republicana y de izquierdas y un 39% por su supuesto deslizamiento hacia la ideología abertzale. El resto lo fue por “*cuestiones morales*”, tan variopintas como el “*abandono de los deberes religiosos*” “*o ser contrarios a la “enseñanza religiosa*”, es decir que habían apoyado la Constitución republicana de 1931.

En Gipuzkoa, el director del Instituto Peñafloida, Modesto Lecumberri, fue el presidente de la Comisión de Depuración de Maestros. La comisión fue completada con Nicolás Ochoa de Eribe, Josefina Oloriz, Manuel Jiménez Chacón y Santiago Azaldegui. La Comisión recabó informes de párrocos, comandantes de puesto de la Guardia Civil y de padres de familia “bien reputados del lugar que radique la escuela”. Los primeros nombres



Kubateka. Marin Furtisa. Fondo Marin. Pascual Marin.

Liburuak erretzen Donostiako Garibai kalean, 1936ko irailaren 14an, tropa frankistak hirian sartu ondoren. Quema de libros en la calle Garibai de Donostia, el 14 de septiembre de 1936, después de la entrada de las tropas franquistas.



Euskadiko Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Sailaren Funttsa. Archivo Histórico de Euskadi. Fondo del Departamento de Presidencia

Gipuzkoako biztanleria zibila Bizkaira ihes egiten,
armada frankista aurrera egiten ari zela ikusita.
Huida de la población civil guipuzcoana hacia
Bizkaia ante el avance del Ejército franquista.



Euskadiko Arxibo Historikoa. Gizarte Laguntza Salaren Funtsa. Archivo Histórico de Euskadi. Fondo del Departamento de Asistencia Social

Klaseak Orthezeko haurren aterpean haur
euskaldun errefuxiatuei, 1938. urtea.
Clases en el albergue infantil en Orthez a niños
vascos refugiados, 1938.



Euskadiko Artxibo Historikoa. Gízarte Laguntza Sailaren Funtisa. Archivo Histórico de Euzkadi. Fondo del Departamento de Asistencia Social.

Haur errefuxiatuentzako eskola Narbonako Lorraine kalean, 1938. urtea. Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligak finantzatzen zuen.

Escuela en la calle Lorraine, de Narbonne, subvencionada por la Liga Internacional de Amigos de los Vascos, para niños refugiados, 1938.

arabera, Gipuzkoan alkateek eman zizkieten garbiketa-batzordeari irizpide politikoekin zerikusia zuten kontrako txosten gehienak, eta haien atzetik, erretoreek eta familietako gurasoek. Guardia Zibilak irizpide politikoekin lotutako oso txosten gutxi eman zituen. Izaera erlijiosoa zutenei dagokienez, erretoreek egin zituzten kontrako txostenak, bai eta moralarekin zerikusia zutenak ere. Gurasoetako familiak, aldiz, oso biziak izan ziren maisuen eta maistren “desbideratze” profesionala kalifikatu zutenean.

Gainerako probintzietan, Bizkaian, hain zuzen, garbiketa handiagoa izan zen Gipuzkoan baino (%30 garbitu zituzten), eta Estatuko probintziarik zigortuenetako bat izan zen, Asturiasen atzetik. Erregimenak beste leku batzuetan baina indar handiagoz esku hartu zuen, *“zenbait baldintza berezi zirela eta, komenigarria baitzen auzibidearen inguruko xehetasun batzuk aldatzea”*, eta irakaskuntzako langile funtzionario guztiak enplegu gabe utzi zituzten. Irakasleek, Estatuak, probintziak edo udalerriak kontratatutakoek, Valladolideko errektoreari zuzendutako eskaera bat bete behar izan zuten 20 eguneko epean, eta bertan xehetasun ugari zehaztu behar izan zituzten, besteak beste, filiazio politikoa eta 1936ko uztailaren 18ra arte egindako jarduerak. Guztira 229 maisu eta maistra kargutik kendu zituzten.

Gipuzkoan, Frankismoak gutxienez bost maisu exekutatu zituen. Ángel Iturmendi Busto, Oñatikoa, Gijónen hil zuten; Miguel Irastorza Echeverría, Zaldibiako herritarra eta Erreterian bizi zena, Donostian hil zen; Daniel Garrido Jiménez, Donostian bizi zen eta El Perdónen (Nafarroa) hil zuten; Cosme Yagüez Beristain, berez Durangokoa eta Usurbilen bizi zena, Orion exekutatu zuten; eta Trino Aguirre Gómez eibartarra Bilbon fusilatu zuten 1938ko martxoan.

Nahiz eta eskuinak gerraren aurreko garaian bizitza politikoa kontrolatu, Araban eta Nafarroan pairatu zuten maisuek eta maistrek zapalketa gupidagabeena, euskal lurralde guztien artean. Gutxienez eta hurrenez hurren, 6 eta 28 maisu exekutatu zituzten sumario bidez edo

de maestros y maestras depuradas aparecieron en el Boletín de la Provincia, en enero de 1937.

Según el estudio realizado por Maitane Ostolaza, la mayoría de informes desfavorables en Gipuzkoa aportados a la comisión depuradora y relacionados por criterios políticos fueron elevados por alcaldes, seguidos de párrocos y padres de familia. Los menos fueron de la Guardia Civil. En cuanto al carácter religioso, los desfavorables fueron realizados por párrocos, al igual que en lo moral. Los padres de familia, en cambio, fueron los más viscerales al calificar la “desviación” profesional de los maestros y maestras.

En el resto del país, Bizkaia superó en la depuración a Gipuzkoa (con un 30%), lo que convirtió en el más castigado del Estado, por detrás de Asturias. La intervención del régimen fue más allá que en otros lugares al *“concurrir circunstancias especiales que aconsejan modificar algunos detalles de carácter procesal”* y se suspendió de empleo a todo el personal funcionario de la enseñanza. Los profesorado, ya fuera contratado por el Estado, la provincia o el municipio, tuvo que rellenar en el plazo de 20 días una instancia dirigida al rector de Valladolid, en la que especificaba todo tipo de detalles, desde su filiación política hasta su actividad desde el 18 de julio de 1936. Un total de 229 maestros y maestras fueron destituidos.

En Gipuzkoa, al menos cinco maestros fueron ejecutados por el franquismo. Ángel Iturmendi Busto, de Oñati, que fue muerto en Gijón, Miguel Irastorza Echeverría, natural de Zaldibia y vecino de Erretería que falleció en Donostia, Daniel Garrido Jiménez, vecino de Donostia al que mataron en El Perdón (Navarra), Cosme Yagüez Beristain, natural de Durango, vecino de Usurbil que ejecutaron en Orío, y Trino Aguirre Gómez, de Eibar que fusilaron en Bilbao en marzo de 1938.

Álava y Navarra, a pesar del control de la derecha de su vida política en la época previa a la guerra, fueron los territorios vascos donde los maestros y las maestras sufrieron la

epaiz kanpo bi lurralde horietako bakoitzean. Zalduondokoak, Galarretakoak eta Gordoakoak Otsoportilloko leizera bota zituzten, Urban.

Nafarroan, agintari frankistek Zirauki, Valtierra, Fitero, Tafalla, Santacara, Uxue, Azkoien, Cintruénigo, Etxauri, Esa, Kaseda, Iruñea, Allin, Lodosa, Ituren, Tutereta eta Oibar herrietako maisuak exekutatu zituzten. Heriotza alderdikoiak izan ziren, etorkizunari begira garbiketa ideologikoa eta politikoa egitea helburu zutenak. Oibarko maisua, esaterako, Gabriel Valentín, bere emaztearekin, Josefina Troncalekin, batera atxilotu zuten. Hura ere maistra zen. Herri osoak haiei buruzko oso iritzi ona zuen. Udalak izan ezik. Alkatearen txostenak hilobira bidali zituen.

Hezkuntza-sistema berria

Ramón Sierra Bustamante Gipuzkoako gobernadore militarrek, garai hartako prentsan idatzitako artikuluko baten bidez, garbiketaren ildo orokorrak adierazi zituen oro har: *“Zuen izenak ezabatuko ditugu, eta hainbat belaunalditan madarikatuko dituzte. Mapetan Euskadi izeneko amarru hori marra berde batez adierazten zuen maisua atzeriratuko dugu. Pilareren eta Jakueren festa tradizionalak ospatzeari uko egiten zion apaiza atzeriratuko dugu. Botikan Espainiaren aurka azpijokoan ibiltzen zen botikaria atzeriratuko dugu. Gainerakoan, zoramen hau eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako luraren mapa estaltzen duen esker gaizto ilunenaren orban hau eragin duten arduradun nagusiak fusilaraziko ditugu”*.

1936ko abuztuan, altxatu zirenek jakinarazi zuten eskola izango zela proposatzen zuten erregimenaren zutabeetako bat, hain zuzen, garaitu zuen erregimenarena. Hilabete geroago, Gipuzkoako Heziketa Publikoko Ordezkaritzak, ordurako frankista zenak, zirkular bat helarazi zuen eskoletara. Hauxe adierazi zuen gutun horretan: *“Haurren irakaskuntza, hezkuntza eta prestakuntza da Aberriaren etorkizuneko bizitza berreraikitze funtsezko oinarria, bai eta mugimendu nazional eta aberkoi loriatsu honi emaitza emanaraziko*

represión más implacable. Fueron, al menos y respectivamente, 6 y 28 los maestros ejecutados sumariamente o extrajudicialmente, en cada uno de los dos territorios. Los de Zalduondo, Gallarreta y Gordoia fueron arrojados a la sima de Otsoportillo, en Urbasa.

En Navarra, las autoridades franquistas ejecutaron a maestros de Zirauki, Valtierra, Fitero, Tafalla, Santacara, Ujué, Peralta, Cintruénigo, Etxauri, Peralta, Yesa, Cáseda, Pamplona, Allín, Lodosa, Ituren, Tudela y Aibar. Fueron muertes sectarias, achacables a una limpieza ideológica y política con previsiones de futuro. El de Aibar, por ejemplo, Gabriel Valentín, había sido detenido junto a su esposa Josefina Troncal, también maestra. Todo el pueblo tenía un buen concepto de los dos. Excepto el Ayuntamiento. El informe del alcalde le llevó a la tumba.

El nuevo sistema educativo

Ramón Sierra Bustamante, gobernador militar de Gipuzkoa, expresó en líneas generales, a través de un artículo escrito en la prensa de entonces, las líneas generales de la depuración: *“Borraremos vuestros nombres que serán malditos por generaciones de generaciones. Desterraremos al maestro que, en los mapas, marcaba con una raya verde ese artificio de Euskadi. Desterraremos al sacerdote que se negaba a celebrar las fiestas tradicionales del Pilar y de Santiago. Desterraremos al boticario que dentro de la botica tenía un poco de conspiración contra España; cuando no fusilaremos a todos aquellos que los principales responsables de esta locura y de esta mancha de la más negra ingratitud que cubre el mapa de la tierra vascongada”*.

En agosto de 1936, los sublevados hicieron saber que la escuela sería uno de los pilares del régimen que proponían, el que finalmente triunfó. Un mes más tarde, la Delegación de Instrucción Pública de Gipuzkoa, ya franquista, hacia llegar una circular a las escuelas en los siguientes términos: *“La enseñanza, educación y*

dion ernamuina ere, oinarri aberkoi sakonenak ere eraldatuz, orain arte pairatu dugun gizarte-degenerazioaren alde egin badu ere”.

Frankismoaren ideologia bere liderraren inguruan taxutzen joan zen, Francisco Franco diktadorearen inguruan, hain zuzen, eta berehala eman zen eskolara, ideologia irakaskuntzaren bidez transmititzearen garrantziari buruz hainbat hausnarketa egin ondoren, beste leku totalitario batzuetan egin zen bezala (Hitlerren Alemanian eta Mussoliniren Italian esaterako).

Balio orokor frankista horiek hezkuntza-sistema eratu zen trazueta adierazi ziren. Espainiako Historiako mito interesatuei (erlijioen gerra, erlijio katolikoa islamaren nagusi zela; Errege-erregina Katolikoen erregealdia; Amerikaren konkista; gaztelaniaren araztasuna...) heldu zien Nazionalismo espainiar amorratu baten bidez, garai batean Espainia izan zen inperio koloniala oinarri hartuta eraiki zen hezkuntza-eginbide berria. Mitoak gertaera ordezkatu zuten.

Hala, Elizak aurreko mendeetan izan zuen garrantzia berreskuratu zuen, eta Estatuak, eta horrenbestez, hezkuntzak, konfesionaltasuna berreskuratu zuten. Vatikanoko tesiak bermatu zituen, eta apaizen eliteak ere. Eskuliburuen eta lelo aberkoiaren arabera, Espainia *“munduko herrialderik katolikoena zen”*. Gainerako sinesmen erlijiosoak ere debekatu egin ziren. Hitlerren erregimenak bere burua *“nazionalsozialistatzat”* bazuen, Frankorenak beretzat hartu zuen *“nazionalkatolizismo”* terminoa.

Erregimenaren *“inperio-bokazioa”* adierazteko, Habsburgoko etxekoen hedapen goreneko garaia hartu zen paradigmatzat. Hain zuzen ere, etxe horretako Filipe II.a erregeak esandakotzat jo zen *“nire inperioan Eguzkia ez da inoiz sartzen”* esaldia. Urriaren 12a, Kolon ustez Karibe amerikarrera iritsi zen eguna eta *“Amerikaren aurkikuntza”* esaten zitzaiona, Arrazaren Eguna (espainiarra) izendatu zuten.

Falangea baimendutako alderdi bakarra eta erregimenaren bizkarrezur bihurtzean,

formación de la niñez es la base esencial para la reconstrucción de la futura vida de la Patria y el germen que ha de hacer fructificar este glorioso movimiento nacional y patriótico, transformando hasta sus más hondos cimientos patrióticos cuanto hasta aquí ha venido contribuyendo a la degeneración social que hemos padecido”.

La ideología del franquismo, que se fue modelando en torno a la figura de su líder, el dictador Francisco Franco, fue trasladada a la escuela de manera urgente, después de las reflexiones previas, ya repetidas en otros escenarios totalitarios como la Alemania de Hitler o la Italia de Mussolini, sobre la importancia de su transmisión a través de la enseñanza.

Estos valores generales franquistas tuvieron su expresión en los trazos con los que fue dibujado el sistema educativo. A través de un nacionalismo español exacerbado que se acogió a mitos interesados de la Historia de España (guerra de religiones con la hegemonía de la católica sobre la islámica, reinado de los Reyes Católicos, conquista de América, pureza de la lengua castellana...), la nueva empresa educativa se construyó sobre el pilar del imperio colonial que España había sido. El mito sustituyó al acontecimiento.

De esa manera, la Iglesia recuperó el papel relevante de había tenido en los siglos anteriores y el Estado, y por tanto la enseñanza, rescató su confesionalidad. El Vaticano avalaría las tesis, al igual que la elite sacerdotal. España, se diría en los manuales y lemas patrióticos, era *“el país más católico del mundo”*. Incluso el resto de confesiones religiosas fueron prohibidas. Si el régimen de Hitler se autocalificó de *“nacionalsozialismo”*, el de Franco se apropió del término *“nacionalcatolicismo”*.

La *“vocación imperial”* del régimen, se resumió en la recuperación como paradigma de la época de máxima expansión de los Habsburgo, a cuyo rey Felipe II se le atribuyó la frase *“en mi imperio no se pone el sol”*. El 12 de octubre, supuesta fecha de la llegada de Colón al Caribe americano y anunciada como del *“descubrimiento de América”*,



Kubateka. Marin Funtza. Fondo Marin. Pascual Marin.

Maitasun Errukiorreko Mirabeen Eskolako Iekameak
Donostian, 1955. urtea.
Religiosas del Colegio Esclavas del Amor Misericordioso
en Donostia, 1955.



Kutxateka. Marín Funttsa. Fondo Marín. Pascual Marín.

Donostian, Santa Maria elizaren irteera, 1940ko hamarkadaren hasieran.
Salida de la iglesia de Santa María, en Donostia, al comienzo de la década de 1940.

haren ideologia ofizialdu egin zen. 1934ko Falangearen puntu programatikoetako bat eskolarako kartel eta sinbolo bihurtuko ziren: *“España es una unidad de destino en lo universal”* (“Espainia helmuga-batasun bat da unibertsalean”). Zehazki zer esan nahi zuen jakin gabe, haurrek papagaiaik bailiran errepikatzen zuten.

Hilario Murua historialariak adierazi zuen euskal eskolaren lehen eraldaketan, agintari berriak kezkatuagoak egon zirela irakasleak eta ikasleak *“garbitzeagatik”* eta doktrinatzegatik, hezkuntza-sistema bat eraikitzeagatik baino. *“Garbiketa”* egin zenean, *“eskolatzeko oso pobreak bat lortu zen, banandu ezin ziren bi kontzeptu oinarri zituen: Aberria eta Erljioa edo Erljioa eta Aberria. Bi kontzeptu horiei soilik erreparatu, erregimen berriko hezkuntza-sistema ez zen arduratu hezkuntza estutzen zuten arazoez”*.

